

ZER DA FAGUS ALKIZA

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroak hiru ardatz ditu: **natura**, bertan jarduten duen **gizakia** eta bi horien arteko harremanetik sortzen den **kultura**.

Naturaren ardatzetik abiatuta, **Fagus Alkizaren** helburua, biodibertsitatea kontserbatzea eta areagotzea da. Horretarako, interpretazio zentroan Hernio-Gazume KBEko biodibertsitateari buruzko informazioa aurkituko duzue; baita mendigunean egin diren eta egiten ari diren kontserbaziorako lanak ere. Gainera, zentroan erakusgai egongo dira bertako basoaren erreplika, kobazulo baten erreplika saguzar espezie ezberdinekin...

Gizakiaren ardatzari dagokionez, **Fagus Alkizaren** helburua, garapen iraunkorra lortzea da. Honela, biodibertsitatea kontserbatzea bermatzen da; izan ere, baserriarrei esker baitaude Hernio-Gazume KBEan hain garrantzitsuak diren larreak, pago motzak... Horrexegatik, egun baserriak pairatzen duen egoera kontuan izanik, Fagus Alkiza ere hausnarketa-gune eta aukerak bilatzeko abiapuntua da.



Bestalde, interpretazio zentro honetan, alkizarrek beren historian zehar ingurunearekin izandako harremana ezagutarazi nahi da. Horretarako, bilduriko ondasun kulturalak bertan ikusgai egongo dira: txondorra, karobiak...

Kulturarena azken ardatza izanik, kontuan hartu beharrekoa da, garaia aldatzen doazela eta horrekin batera ohiturak, ustiapen ereduak, ingurumenarekiko harremanak, kontsumoa ... Beraz, kultura aldatetzat hitz egiten ariko ginateke. Hori dela eta, zentroaren helburua da landa eremuan kultura era integralean sustatzea.

Hortaz, **Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa** Hernio-Gazume KBEaren erakuslehoi izateaz gain, herritarren, baserriarren, naturazaleen, artisten, mendizaleen ... hausnarketa-gune eta topagunea da. Gainera, zentroak urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu, besteak beste: hitzaldiak, eskoletako umeei mendi-irteera (Itxuraingo bira), tailerrak...



Fagus Alkiza

Centro de Interpretación de Hernio-Gazume

FAGUS ALKIZA

HERNIO-GAZUME KBE/ZEC
Interpretazio Zentroa / Centro de Interpretación

Herriko Plaza. Alkizako Udaletxea
Tel: 943-690235 Fax: 943-690156

www.fagus-alkiza.com
info@fagus-alkiza.com



LAGUNTZAILEAK



Alkizako Udala
Ayuntamiento de Alkiza



Natura Gizakia Kultura

HERNIO-GAZUME KBE

2004. urtean, Europako Batzordeak, Hernio-Gazume Batasunaren Garrantziko Leku (BGL) izendatu zuen.

2013ko apirilak 30ean, Eusko Jaurlaritzak, Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zuen. Horrela, Hernio-Gazume mendigunea Batasunaren Garrantziko Leku (BGL) izatetik **Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)** izatera pasa zen.

2.158 ha-ko azalera eta kareharrizko erliebe karstikoa duen mendigune honek **balio handiko paisaia-multzoak ditu**.


Paisaia horietan mehatxatutako fauna espezieak bizi dira: **hildako egurrean bizi diren intsektu deskonposatzaileak, kiropteroak** (saguzarrak) **eta hegazti harrapariak** (sai arrea eta sai zuria).



Larreak eta sastrakak



Kareharrizko gailurrak, harkaiztietako kobak eta zuloak



Isurialdetako basoak (pagadiak, hariztiak,...)

Alde batetik Hirumugarrietatik hasi, eta aldeaz alde Hernio-zabaleko mugaraino; eta bestetik, Belako harkaiztietatik, Santakruz ermita zaharraren aztarnetaraino.

Fagus Alkiza

Hernio-Gazume Interpretazio Zentroa

www.fagus-alkiza.com



IBILBIDEAK

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroak Hernio-Gatzume KBE zuzenean ezagutzeko proposatzen dituen hainbat ibilbide:

▲ HERNIO

HASIERA

ASTEASU - ZIZURKILerako Norabidea

ANOETAraiko Norabidea



1) IBILBIDE LUZEA (Hernioko bira)

Luzera: 14 km.
Desnibela: 700 m
Iraupena: 4 ordu.
Zailtasuna: ertaina.
Elementu aipagarriak: Hernio eta inguruko mendien ikuspegi zabala, basoak, harkaiztegia.



2) IBILBIDE ERTAINA (Itxuraingo bira)

Luzera: 6,5 km.
Desnibela: 350 m
Iraupena: 2 ordu.
Zailtasuna: ertaina.
Elementu aipagarriak: Harkaiztetako hegaztiak, Hernioko ikuspegia, pagadiak, zuhaitz zaharrak.




3) IBILBIDE MOTZA (Askantxoko bira)

Luzera: 3,2 km.
Desnibela: 100 m
Iraupena: ordu 1.
Zailtasuna: erraza.
Elementu aipagarriak: Askantxoko erreka, ubidea, urzuloa, Ursalto ur jauzia, baserri ingurunea.



4) BASERRI PAISAIA IBILBIDEA (Aginagako bidea)

Luzera: 5,2 km.
Desnibela: 95 m
Iraupena: 1h 45'.
Zailtasuna: erraza.
Elementu aipagarriak: Alkizako baserrien paisaiaz gozatzeko oinezko ibilbidea.



LEGENDAK

- FAGUS Alkiza
- Herriko ostua
- Lete Nekazalturismoa
- Urruzola Upategia
- Urmara Museoa
- Hilerria
- Iturria
- Karobia